

UMORE ZIKLOA EUSKARAZ

IRRIZIKLO HAMAR2018 IRUÑA



Otsailak 21, 23 eta 28
Martxoak 7, 14, 21 eta 27

NAFARROAKO ANTZERKI ESKOLA



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

Laguntzailea:



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

UMORE ZIKLOA EUSKARAZ

IRRIZIKLO HAMAR2018 IRUÑA

Otsailak 21, 23*, 28 eta martxoak 7, 14, 21 eta 27

NAFARROAKO ANTZERKI ESKOLA

20:00

Sarrera: 3 € • Abonoak: 13 € (ziklo osoa)

* Otsailaren 23ko Kondestable Civivoxeko ekitaldia, 19:30ean, doakoa da.

OTSAILAK 21, asteazkenez

NI ALA ZU

Joseba Usabiaga eta Iñaki Santos



2018 urtea. Psikiatriko baten musika gela. Musikaria eta "musikaz erotuta" dagoen pertsonaia.

Musikaria bere gelan dago, norbait azaltzeko zain. Musikaz erotu den "bezeroa" sartzen da.

Terapia behar du bere arazoa gainditzeko.

Joseba Usabiaga antzerkian, zineman eta telebistan ibilitako aktore gipuzkoarra "Handia" film arrakastatsuen protagonista dugu eta Goenkale telesailean hainbat urtez lan egin du.

Iñaki Santos aktorea (Agerre Teatroa, Dejabu, Bazen behin clown) eta musikaria da, abesten du eta zenbait musika tresna jotzen ditu (teklatuak, saxoa, perkusioak...) formazio ezberdinetan.

MARTXOAK 21, ostiralez*

Kondestable Civioxeko Areto Gotikoan - 19:30

FROM CORK TO KORTEZUBI

Barry Barrez

Bakarrizketa hone-tan, saiatuko naiz nire benetako istorioa azaltzen pasadi-zoekin, eta nola ez, umorearekin. Zergatik etorri nintzen Euskal Herrira, zergatik euskara ikasi eta, batez ere, zergatik egiten ditudan umorezko bakarrizketak.



Barry Manley 'Barry Barrez', irakasle, idazle eta bakarrizketa egile irlandar euskalduna dugu. Musikaria eta kantaria ere dena.

OTSAILAK 28, asteazkenez

BIBA VOI! [DARÍO FO ETA FRANCA RAME-REN ANTZERKIA]

Mikel Martinez eta Irati Agirreazkuenaga

Tartean Teatroa

2016ko urrian joan zitzaigun Darío Fo eta 2013ko maiatzean bere emazte Franca Rame. Biek oihartzun handia utzi dute antzerkian. Haien lanek duten ironiak eta salaketek ez dute gaurkotasunik galdu eta inoiz baino beharrezkoagoak izan daitezke egun.

Misterio Bufo, Anarkista baten ezusteko heriotza, Adan eta Eva, Tutta casa, letto e chiesa... bezalako testu zorrotz eta zirikatzaileek euren filosofia, ideologia eta bizitzeko era transmititzen dituzte beti ere umorearen bitartez.



Mikel Martinez antzezle eta idazlea da, Maskarada konpainia historikoaren sortzailea eta 'Ez dok hiru' eta 'Tartean' antzerki konpainien partaidea.

Irati Agirreazkuenaga antzerki aktorea, kazetaria eta EHuko irakaslea, telebistan eta irratian aritu da. 2011n Alanbike Antzerki konpainia sortu zuen.

MARTXOAK 7, asteazkenez

INPERNUTIK NATORREN ARTISTA BAT NAIZ NI!

Txan Magoa

Miraririk badela esaten badizute... ez sinetsi.

Gauzak bere kabuz mugitzen direla esaten badizute... ez sinetsi.

Ametsak errealitate bihurtzen direla esaten badizute... ez sinetsi.

Baina magiarekiko sinesgaitz direla esaten badizute... ez dute oraindik Txan Magoaren azken sorkuntza ikusi.

Txan Magoa Gipuzkoako Ilusionisten Elkarteko kidea da Aretoko magian espezializaturik dago. ETBko Barrebusa saioan ibilitakoa da.

Maiz aritu da lankide haur ikus-kizunetako pailazoekin hara nola Takolo, Pirritx eta Porrotxekin; edo Gari, Montxo eta Joselontxo-rekin.



MARTXOAK 14, asteazkenez

ERRADIKALAK GARA

Beatriz Egizabal eta Ane Labaka. Lanku

"Erradikalak zarete" esaten digute. Eta "nahi eta behar baino gutxiago" pentsatzen dugu.

Bi emakume elkartu gara eta maletak kontraesanez beteta dakartzagu, bertsoak eta bakarrizketa uztartuz.



Erraietatik ariko gara, umorez, erroetara iritsi nahian.

"Erradikalak gara" esango dizuegu. Eta "nahi eta behar baino gutxiago" pentsatuko duzue.

Gipuzkoako Lasarte-Oriakoak dira biak, Ane Labaka bertsolari eta bertsolaritza-irakaslea da eta Beatriz Egizabal Kontu-Kantoi taldeko clown eta ipuin-kontalaria.

MARTXOAK 21, asteazkenez. Bi ikuskizun:

SEXIJENTZIAK ASKATUZ

Itziar Saenz de Ojer. Bazen behin clown

Pituxak larru jotze kontuetan ez du gozatzen. Irtenbide bila ibili da eta publikoari kontatzera dator bizitakoa: Zein betebeharrak eta exijentziak sortzen zaizkigu harreman erotikotik?

Ba al dakigu zein den gure benetako desira?

Edota gizarte estereotipoen mendean gaude?



Itziar Saenz de Ojer Bazen behin clown taldeko aktorea izateaz gain, ipuin-kontalari, pedagogo, sexologo eta hezitzailea ere bada.

PANTXIKA LAMUR. NIK EGIN BEHARKO & KO

Ainhoa Juaniz. Zirika Zirkus



Gure pailazotxoak oporretatik heldu da, maleta eta guzti. Ikuskizun bat ikustera sartu da. Denbora pasa ahala bai bera, baita ikuslegoak ere, konturatuko dira artista ez dela iritsi. Berak honetarako, gauza guztietarako bezala, konponbidea dauka jakina... Berehala egingo da eszenatokiaren jabe.

Ainhoa Juaniz "Pantxika" clown eta aktore iruindarra. Zirika Zirkus konpainiaren sortzailea da Luis Lainezekin batera.

MARTXOAK 27, asteartez

ETXEKO SALTSAK

Txalo Produkzioak

Testu-egilea: Alan Ayckbourn



Jatorrizko “*Relativity speaking*” antzezlan arrakastatsuen euskarazko bertsioa aurkezten digu Txalo konpainiak.

Endreduzko komedia burutsu eta korapilatsu bat da. Maitaleen eta bikoteen sekretu eta ezkutaketen jokoak. Ikusleek pertsonaiek baino informazio gehiago dute eta aktoreak gaizki-ulertuen etengabeko kate dibertigarrian dantzan ari-tuko dira.

Aitziber Garmendia, Miren Gojenola, Mikel Laskurain eta Aitor Fernandino. Eskarmentu handiko aktoreak, bertan zein estatu mailan ezagunak. Antzerkian, zineman eta telebistan ibilitakoak.

